

METAFONOLOGIAREN GARRANTZIA IRAKURKETARAKO BIDEAN :

TEORIA ETA PRAKTIKA

Joana Labeguerie, ortofonista

Ikasen 2017/05/09an egin mintzaldiaren laburpena

Zer ote da irakurtzea?

Zer ote da irakurle izatea?

Zein dira irakurle trebea izateko gaitasunak?

I. IRAKURLEAREN SORTZEA

- Irakurri aitzin nolakoa ote da haurraren burmuina?

Hizkuntza mintzatuaren ulermena eta ezagutza bisuala ezinbestekoak dira irakurketan sartzeko.

Sortu orduko eta lehen hilabeteetan, haurrak hizkuntza-gaitasunak baditu. Bere ama hizkuntzaren kontraste linguistikoak hautematen ditu. Fonema ezberdinak entzutean, burmuineko gune ezberdinak aktibatzen zaizkio.

• Gaitasun metafonologikoak 0 eta 6/7 urte arte

Lehen urteak: haurrak hastapenetik komunikatzen badaki. Amaren sabelean jadanik, haurkiari soinuak interesatzen zaizkio eta egunero baliatzen diren hitzak gogoan hartzen hasten da. Ondotik, sortzen delarik, niniak ingurumenean dituen soinuak analizatzen ditu, bereziki aho-hizkuntzan.

Mediku-irudigintzari esker badakigu niniak hizkuntza eta harrabotsa bereizteko gai direla. Beren ama hizkuntzaren erritmoa ezagutzen dute; hastapenetik analisia gaitasunak badituzte. Metafonologia hor da baina ez garatua.

• 2 urtetik aitzina: lexikoa

Bi urtetik aitzina, haurren lexikoa bat-batean emendatzen da («boum lexical») eta gramatika plantan ezartzen da.

Irakurtzen hasten direlarik, 5-6 urteko haurrek **beren** hizkuntzaren adierazpen fonologikoak dituzte: milaka hitzen, oinarriko egitura gramatikalen eta errannahiaren arteko loturak egiteko gai dira.

- **Sistema bisuala**

Lexikoa eta morfosintaxia garatu arau, sistema bisuala garatzen da (6 urtetan sistema bisuala ez da garatua, ondorioz marrazkiak arreta bisuala ez nahasteko gisan hautatu behar dira).

- **5-6 urtetan: irakurketaren 3 heinak (Uta Frith)**

Irakurle hasiberria irakurle aditu bilakatzeko denbora behar da.

Uta Frithek 3 aldi deskribatu ditu (eskema sinplifikatua):

1. 3-5 urtetan: «aldi logografikoa»

Irakurle gazteak idatzia orokorki analizatzen du (itxura, koloreak, letren orientazioa, letren kurbak...).

Bere izena, deitura eta beste eguneroko hitz batzuk ezagutzeko gai da (coca cola, super U...).

2. «aldi alfabetikoa»

3. «aldi ortografikoa»

Hitz luzeak, grafema konplexuak eta hitz arraroak irakurtzea zailago da.

Bide lexikala plantan ezartzen da. Sistema bisuala garatzen da.

II. KONTZIENTZIA FONOLOGIKOA

- **Zer ote da?**

Hizkuntza bat osatzen duten unitate linguistikoak baliatzeko eta analizatzeko gaitasuna da. Gure aho-hizkuntza soinu unitatez (fonemaz) osatua dela ohartzeko gaitasuna da (adib. silabaz edo fonemaz). Kontzientzia fonologikoari esker, haurrak badaki soinu unitate horiekin ari izan daitekeela.

Metafonologiako gaitasunak garatuak direlarik, haurrak unitateak baliatzeko gai dira (ifrentzuz ezarriz, elkarri lotuz, hitz bati gehituz edo kenduz, etab.).

Fonemak badirela ohartzea ez doa berez (Morais). Kode alfabetikoa esplizituki ikasi behar da. Kontzientzia fonologikoa garatuagoa eta hizkuntzaren analisia barnago izanen da.

Hizkuntzaren analisia ez da hizkuntza guzietan berdin egiten, horregatik kontzientzia fonologiko handia behar da (bereziki haur elebidunentzat). Metafonologiako gaitasunak dituen pertsonak silabak eta fonemak bereizten ahal ditu (pentsamendu aktiboa: metafonologia). Beraz erran-nahia aiseago aurkitzen du eta hizkuntza aiseago ulertuko.

- **Fonemez kontzientzia hartzea**

Aitzinatzeko, hurrek irakurketaren 2. bidea garatu behar dute: grafematik fonemara (letratik-soinura). Hitzen sortzeko loturak plantan ezartzen hasten da. («B-A BA»).

Alfabetoa goizegi ikasteak irakurketaren barneratzea emekitzen du.

Hurrek fonemez kontzientzia hartzen dutelarik, hala nola hizkuntza erranaldiz, hitzez eta soinuaz osatua dela ohartzean, kontzientzia fonologikoa finkatuko da.

- **Irakurketa garatzeko behar diren gaitasunak**

- ikusmen-gaitasunak + kontzientzia fonologiko garatua. Horiei esker, konbertsio grafo-fonetiko eraginkorra garatuko da, eta ulermena ere.

IRAKURTZEA: LETREN EZAGUTZEA + ULERMENA
Irakurketaren helburua: ULERMENA (eta ez silabatzea)

- **Zertako gaitasun metafonologikoak garatu?**

Ikertzaileek frogatu dute metafonologiako konpetentziak ezinbestekoak direla idatzian. Ezinbestekoak: irakurketan, idazketan, aho-hizkuntzan eta matematiketan. Horregatik gomendatzen dute lehen ziklotik goiti egunero landua izan dadin.

Metafonologiaren ekarpenak: **hizkuntza sailean** (komunikatzeko bai eta azterketa analitikoa sustatzeko), **ahoskatze sailean** (silabaren pertzepzioa zehaztuz, ahoskatzea zehazten da, eta ondorioz fonemaren diskriminazioa ere). Haurra hobekiago ulertua baldin bada, haren erranen mamia aberatsagoa izanen da. Haurrak **hizkuntzaren erritmoa** kontuan hartu beharko du; ohartuko da erranaldiak/hitzak zaluegi erranez geroz, erran-nahi ezberdina izan dezaketela. Hizkuntza bakoitzak bere prosodia badu. Metafonia garatua duten **haurrek fonemaren eta grafemaren arteko lotura** aiseago egiten dute. Lehen zikloan kontzientzia fonologikoa barnatua baldin badu, haurrak **denbora** gehiago ukanen du lehen mailan irakurketaren eta idazketaren mekanika lantzeko. Letren eta fonemen azterketak gaitasun analitikoak eta arreta garatzen ditu (gaitasun kognitiboak orokorki).

Lehen mailako lehen urtean ere kontzientzia fonologikoa landu behar da. Erabilia den materialetako progresioa maiz zaluegi da, 1. urtean kontzientzia fonologikoa baztertua da eta haurren garapena ez da kontuan hartzen.

Gauza jakina da irakurtzen ikasteak forma geometrikoen pertzepzioa hobetzen duela.

Bide analitikoa zenbat eta garatuagoa, irakurketa lexikala hainbat eta indartsuagoa, eta aztertzeko gaitasunak hainbat eta finkoagoak.

KASU: dislexiadunen kasuan ez da berdin.

- **Grafema eta fonema (entzumenezko edo ikusmenezko azterketa)**

Biak betan garatzen dira; horregatik biak betan landu beharko dira.

Hurrek lehenik kontsonante sinpleak aztertzeko gai dira eta ondotik dobleak (/TS/TZ/ adib.).

Ondorioz lehenik kontsonante sinpleak landu beharko dira eta ondotik konplexuak (hori hizkuntza gardenetan; ikus S. Dehaeneren aholkuak).

- **Kontzientzia fonologikoa eta irakurketa**

Lehen zikloan: lehen zikloan sartzeak metafonologiaren garapeneko urrats formala adierazten du.

Helburu nagusietarik bat hizkuntzaren garapena da.

KASU: ongi mintzo diren hurrek ez dituzte baitezpada metafonologiako gaitasun garatuak.

Lehen mailan: irakurketa/idazketa; lehen zikloan hizkuntzaren azterketa ez baldin bada aski garatzen, zailtasunak **emendatuko** dira. Kontzientzia fonologikoa irakurketa ikastearekin betan landu behar da.

Kontzientzia fonologikoa ez baldin bada menderatua, printzipio alfabetikoaren ulermena zailago izanen da (soinu bat = letra bat).

Lehen urtean soinu edo grafema nahasketak gertatzen baldin badira, lehenetasuna kontzientzia fonologikoari eman behar zaio.

KASU: eite duten letrak ez dira sekula elkarren ondoan agerrarazi behar (adibidez b/d/p; ikus «Orthoptie» artikulua).

III. IRAKURKETA ERRAZTEKO LANDU BEHAR DENA

EGIN ETA EGIN, ERREPIKATU: IKUSI, ENTZUN, USAINDU, HUNKITU, BIZI

- errima, silaba, fonema
 - ° ikusmenezkoa (ezaugarriak, gogoan hartzea, letren marraztea)
 - ° hizkuntza orokorki (lexikoa, morfosintaxia): helburua ulermena izanki, ariketa guziak gai bati lotuak izan beharko zaizkio.
- Orokorki lantzekoak
 - ✓ Erranaldia: unitate linguistiko luzeena baina hautemateko aiseena: hitz multzo bat elkarren jarraian ezarriz geroz, erran-nahirik duen erranaldi bat osatzen da.
 - ✓ Hitza: erran-nahirik duen unitate linguistiko ttipiena da. Hitza silabatan zatitzen baldin bada, silaba bakoitzak hitzaren erran-nahia galtzen du.

- ✓ Silaba: fonema batez edo gehiagoz osatua da eta aldian osoki ahoskatua da. Hitzen ahoskatzeko ahala ematen du: silaba bakoitz, gure ele organoek egon-molde berri bat hartzen dute; horrela dugu argiki ahoskatzen.
- ✓ Errima: silabari edo fonemari lotua zaizkio (errima ezberdinak: ikus bertsolaritza).
- ✓ Fonema: fonema bat = soinu bat. Unitate linguistiko ttipiena, deskonposa ezina. Hautemateko unitate **zailena**. Fonemaren aztertze, bereizte edo erabiltzeko gaitasuna, haur guzietan ez dute ber heinean garatua (nahiz eta hizkuntza gaitasun garatuak ukan). Alta fonemaren lantzea ezinbestekoa da idatzizko hizkuntzaren hobetzeko.
- ✓ Silaba fonematan zatitzea garrantzitsua da irakurketa eta idazketa garatzeko (kasu proposatzen den silaba kopuruari).
- ✓ Grafema: fonema baten idazteko baliatua den ikur bat da.

- **Ortografiaren garapena**

Idaztea irakurtzea baino zailago da: idaztean testua ez da oraindik idatzia, sortu behar da. Bestalde, motrizitate jestua ere kontuan hartzekoa da.

Ikerketek erakutsi dute metafonologiako gaitasun azkarrek beste arloetako gaitasunak ere hobetzen dituztela (logika, memoria eta abstrakzioa, besteak beste).

- **Lantzekoak**




- **Gelan noiz/nola**

Lehen zikloan:

- astean lau aldiz
- lehen zikloko ttipi-ertainak: aldi oroz 5-10 minutuz
- lehen zikloko azken urtean: aldi oroz 20 minutuz

Lehen mailako 1. urtean: egunero 5 minutuz, idatziz/ahoz

- saio antolatuak, zehatzak eta errepikakorrak, ahozko tratamendua errazteko
- motrizitate fina landu, ahalaz motrizitate orokorra baliatuz: salto, musika tresna (kasu koordinazioari)
- hiztegi argia eta zehatza
- saioaren helburua esplikatzuz
- talde ttipitan (12 ikasle nonbait han) eta talde handitan. Aldatu behar da, batzuetan erantzuna bakoitzari galdetuz eta beste batzuetan taldeari.
- erantzun aktiboak eta pasiboak (hautua emanaz). Haurrak beti erantzun ulergarriak egin behar ditu.
- gehienik bizpahiru jarduera: helburu konkretuak, ebaluatzeko gisakoak.



Urraspidea: lehen zikloan

1. Hizkuntza jokoak/Entzuten trebatzeko jokoak:

Helburua: soinuen arreta selektiboa sustatzea + kontzientzia linguistikoa garatzea.

Haurrei galdeginen zaie soinu ezagunak/ezezagunak aztertzea (norabidea, intentsitatea, gogoan hartzea...). Ondotik hizkuntzaren soinuekin ber lana proposatuko da. Aktiboki eta analisisia eginez entzutea landuko da.

Gehienetan lehen zikloan haurrak erranaldiak egiteko gai dira baina lexikoa eskas dute eta hizkuntza unitatez osatua dela ez dira ohartzen (erranalditik fonemara).

2. Hitzak eta erranaldiak: hauekin loturiko jarduera anitz egin behar dira.

Haurrak gai izan behar dira erranaldiak laburtzeko, luzatzeko edo aldatzeko (hitzak eta morfosintaxia aldatuz: pertsonaiak, ekintzak edo denboraldia aldatuz, adibidez). Hitzak elkarri lotuz, haurrak ohartzen dira erranaldiaren erran-nahia sortzen dela eta alda daitekeela.

Erranalditik hitzera (ipuinak abiapuntu interesgarriak dira).

3. Kontzientzia silabikoa: **fonema ez da oraino lantzen.**

Helburua: hitz zatitzearen kontzientzia.

Gorputza baliatuz, beren izenetik abiatuz, silabak argiki ahoskatuz eta haurrek ezagutzen dituzten hitzak adibidetzat hartuz.

Isiltasuna: ariketa horien egiteko, arreta osoa behar da.

Urraspidea:

° silabak zatitzea («bihotza» -> «bi-ho-tza»)

* hitz bateko lehen silaba eta beste baten azkena lotzea (“etxe”/“bero” -> “bea”)

° silabak ifrentzuz lotzea («ama» -> «maa»)

Lehenik 2 silaba, 3 silaba; **lauzabost silabako hitzak azkenik lant.**

Aldi oroz: ariketa ANITZ proposa.

4. Lehen eta azken soinuak: fonemez kontzientzia hartzea

Gorputza baliatuz: ahoak zer itxura du?, soinu joak/irauten dutenak, ahostunak/ahoskabeak.

Denbora utzi.

Ikusmena eta ukimena baliatu.

Erdiko fonemak azkenik landu behar dira.

Kontzientzia fonemikoa zailena da beraz hau da gehienik landu behar, lehen urtean bereziki.

KASU! Borel-Maisonnyren printzipioa erakargarria da. Alta, neurozientziek aspalditik erakutsi dute proposatzen duen urraspidea ez dela haurraren garapenaren arabera (ikus S. Dehaenen aitzinatze taula).

5. Errima: zailena baina beharrezkoa

Errimak sortu, entzun, kontatu (KASU: ez zaio grafemari lotu behar! Ahozko lana da).

6. Fonema

Lehenik bokalak landuz. Proposatutakoak diren ariketek maiz ez dituzte aski luzaz lantzen.

Azkenik klusters (kontsonante-kontsonante-bokala)

7. Letrak

Urtean zehar letra-gakoak aldatu behar dira, haurrek fonema ezberdinen arteko loturak egin ditzaten.

Kontzientzia fonologikoaren ebaluazioa: soinu/letra berri bat proposatu aitzin, haurra zertan den jakin behar da. Ebaluazio labur hori beharrezkoa da, ondoko helburuen hautatzeko (ahoz + idatziz).

Nola?

- aldi oroz, haurrari galdegiten zaio berdina/ezberdina diren ezaugarriak ezagutzea (hitz, silaba edo fonemen artean)
- helburu guzietan ikaslearen jarduerekin eta hiztegiarekin loturak behar dituzte
- denbora utzi behar zaie
- material berdina baina lexikoa aldatuz.

MATERIALA

- Kantuak, olerkiak
- Eraikitze jokoak
- Orea, tindua: soinuen irudikatzeko
- Letra magnetikoak
- Arbela
- Keinuak (**Borel adibidez**)
- Miraila (ahoaren mugimenduak + gorputza + airea + soinu sokak)
- Kuboak, tantoak

KASU

- letra-tipografiari: tipografia sinplea behar da (comic, arial...).
- Izariari
- Ilustrazioei: marrazki dibertigarriek ez dute deus ekartzen.
- Adierazpena sinplea eta argia izan behar da. Marrazki dibertigarriek memorizatze gaitasunak ahultzen dituzte.
- Kolore biziek informazioak itotzen dituzte eta arreta ttipitzen.
- Bi lerroren arteko espazioak ez du ez ttipiegi ez handiegi izan behar (adin horretakoentzat, 1,5 cm-ko espazioa egoki da).

KASU ikusmenaren lantzeko proposatzen den materialari: 2, 6 edo 30 urteko pertsonak ez dute gauza bera ikusten!!! 6 urtetan ikusmen nerbioa garatzen ari da, beraz hurrek eta jende helduek ez dituzte ber xehetasunak ikusten (itxurak, izariak). Bospasei urteko haurrak ikusmen-sistema ez du oraino garatua.

ONDORIOZ

Beraz kontzientzia fonologikoak irakurketa gaitasunak iragartzen ditu (ez du erran nahi besteek ez dutela sekula irakurriko!).

Egunero kontzientzia fonologiko ariketak egiten direlarik, irakurtzearen ikastea aiseago da eta zailtasunetan diren haurren kopurua ttipitzen da.

Kontzientzia fonologikoak jakingura pizten du, gaitasun kognitiboak garatzen ditu, hizkuntza garatzen eta aberasten.

Bibliografia:

Evaluation de la conscience phonologique et entraînement des capacités phonologiques en grande section maternelle, Laboratoire congni-science

Les neurones de la lecture, Stanislas Dehaene, Odile Jacob

Apprendre à lire, des sciences cognitives à la salle de classe, Stanislas Dehaene, 2011, Odile Jacob

Conscience phonologique, M. Jager Adams, B. Foorman, B. Stanké, Chenelière édition

Rôle des composantes motrice et représentationnelle dans l'apprentissage du principe alphabétique chez des enfants pré-lecteurs de grande section maternelle, S. Bouaziz, Institut des sciences et techniques de réadaptation

Accompagner l'enfant atteint de troubles d'apprentissage, M. Petiniot, Chronique sociale